

## **Foru Aldundiak Antoñanako zama biltegi zaharra birgaitu du**

*Diputatu nagusia Vasco-Navarro Trenbidearen Bide Berdearen eraikin berreskuratuen inaugurazioan izan da gaur goizean*

*“Mendialdea biziberritzen” foru programaren barruan kokatzen da jarduera hori, eta haren helburua da Mendialdearen garapen ekonomiko eta sozialerako oinarri sendoak sustatzea eta finkatzea*

**Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 13a.** Ramiro González diputatu nagusiak gaur goizean inauguratu du Antoñanako Vasco-Navarro Trenbidearen Bide Berdearen zama biltegi zaharra hartzen zuen eraikin berriki berreskuratu eta birgaitua. Ekitaldi horretan, bigarren diputatu nagusi Cristina Gonzálezek, Ingurumen Saileko foru diputatu Jose Antonio Galerak eta tokiko erakundeetako ordezkariak ere hartu dute parte.

“Mendialdea biziberritzen” foru programaren barruan kokatzen da jarduera hori, eta haren helburua da Mendialdearen garapen ekonomiko eta sozialerako oinarri sendoak sustatzea eta finkatzea.

Esku hartze horri esker biltegia birgaitu ahal izan da, jatorrizko diseinuaren arabera haren azalera handituta, eta espazio horretarako erabilera askotariko diseinu batekin proiektatu da. Zehazki, atsedengune bat hartuko du, jatetxe eta bizikletak alokatzeko gune eta guzti, bide berdean erabiltzeko ekipamendu jasangarri gisa.

“Tren ondarearen harribitxi hori arkitektonikoki berreskuratu izanak, Alejandro Mendizabal diseinatzailearen 1927ko jatorrizko planoetako jarraibideei jarraiki, erakusten du foru erakundeak zer konpromiso hartu duen tren horrek idiosinkrasiak eta lurraldeak lotzeko balio berberak mantentzeko” esan du diputatu nagusiak.

Biltegi zaharra berreskuratuzko diseinu bat planteatu da, bereizten dituen, lehenengo begiratuan, jatorrizkoa eta berriki eraikitakoa. Hau da, harrizko zatia jatorrizkoa da, eta kristalekoa, berriz, berria.

Birgaitze prozesuaren barruan, gainera, zenbait elementu txiki baina egiazki berezi zaharberritu dira, hala nola zurezko lehengo atetzarrak eta lehengoaren teilatuko egiturak eta burdinsareak.

Esku hartze horrek birgaitze historiko baten alderik gizatiarrena babestu nahi izan du. Memoria bizia da, oroitzapenen testigantza ematen duena, eta 1967an garraio bide gisa erabiltzeari utzi zion arren Vasco-Navarro Trenbidearen Bide Berdeari esker Arabako eskualdeetatik igarotzen jarraitu duen tren bati bizia ematen diona.

Horiek horrela, Ramiro Gonzálezek tokiko parte hartze prozesuaren garrantzia baloratu du, “harremanak estutzen, sinergiak sortzen eta eskualde bat kohesionatzen laguntzen baitu. Formula hori bultzatzearen alde egiten dugu, bide berde horretan lan egiten jarraitzeko elementu egituratzaile gisa”.

Ingurumen eta Hirigintza Sailak egindako eraikina birgaitzeko lanetarako aurrekontua 245.764,79 eurokoa izan da. Bestalde, barrualdea egokitzeko lehen faseari Turismo Sailak ekin dio, eta 40.000 euroko inbertsioa egin behar izan da. Gaur egun, lanean ari da etorkizunean bigarren fasea gauzatzeko eta, hartara, ondare kultural eta herrikoi horren berreskurapena osatzeko.

### **Saria**

Esku hartze hau, bai eta bide berdean garatutako beste biak ere (Leortza-Zekuianoko tuneleko proiektu artistikoa eta Maeztuko mural artistiko/teknologikoa), Bide Berdeen Europako Elkarteak aitortu zituen iazko irailean, "ekimen eredugarri"aren sariarekin.

Sari hori Arabako Mendialdeko Kuadrillari eman zaio gaur goizean, eta Antoñanako bide berde horren Interpretazio Zentroan egongo da ikusgai.

### **Vasco-Navarro Trenbidearen Ibilbide Berdea**

Paisaia aldakor eta ederretan zehar eta Arabako Natura 2000 Sareko landa gune xarmagarrietan eta naturagune babestuetan zehar ibilbide berezia egiteko prest dauden ibiltari eta txirrindularientzako bide bihurtu da Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdea.

61 kilometroko ibilbidea du Gipuzkoatik Nafarroara, eta 9 udalerrri eta lurraldeko 21 herrigune zeharkatzen ditu. Urtero 300.000 pertsonak bisitatzen dute: % 40 oinezkoak eta % 60 txirrindulariak.